



ORDAINKETA ZATIKATUA BIZKAIKO EDO GIPUZKOAKO FORU ARAUDIAREN PEAN DAUDEN ENTITATEENTZAT

Araudia: Sozietateen gaineko zergaren foru arauak (11/2013 eta 2/2014, hurrenez hurren), 130. bis artikulua.

Zergadunak: aplikatu beharreko foru araudian halakotzat definituak.

Epea: urriaren 1etik 25era.

Zenbatekoa: (Zerga oinarria * % 5) - atxikipenak eta konturako sarrerak.

- Zerga oinarria: aitortpena egiteko epea urriaren 1ean igarota daukan azken zergaldikoa. Epemugara heldutako azken zergaldikoa urtebete baino laburragoa izanez gero, zerga oinarria 12 hilabeteko epealdia osatzeraino gehituko da. Aitorpenik ez bada aurkeztu, horretara behartuta egonez gero, aurkeztutako azken aitortpeneko zerga oinarria edo, hala dagokinean, egindako azken likidaziokoa hartuko da erreferentziazat.
- Atxikipenak eta konturako diru sarrerak: zergadunaren diru sarreren kontura egindako sarrerak eta atxikipenak kenduko zaizkio, delako zergaldiari dagozkionak.

Ordainketa zatikatua lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan egin behar duten entitateek, zergaren azken likidazio-aitortpenean zehaztutako proportzioa aplikatuko dute. Hala ere, beste proportzio bat aplikatu ahal izango dute 37/2013 Foru Arauaren 130.6 artikuluan jasotzen diren kasuetan.

Ereduak: 203 eta 223

203 eredu (banakako araubidean) eta 223 eredu (zerga baterakuntzako araubidean), entitateari aplikatzekoa zaion araudiaren arabera eskumena duen administrazioak onartutako laguntza programa egokiaren bidez bete behar dira.

Ez dira aurkeztu behar 203 eta 223 ereduak, dagokien aldi ordainketa zatikatu moduan inolako diru sarrerarik egin behar ez den kasuetan.

Aurkezpena: telematikoa

203 eta 223 ereduak, nahitaez, telematikoki aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoaren bidez.

Aurkezteko prozedura: www.araba.eus - Egoitza Elektronikorako sarrera - Banakako aitortzen aurkezpena - Ziurtagiri digitalaren bidez identifikatzea - Sortu eta bidali - Aitortzenak sortu eta bidali - Eredua bidali.

Laguntza zerbitzua:

203 eta 223 ereduaren aurkezpen telematikoz zalantzarik baduzu, dei egin dezakezu Egoitza Elektronikoko Laguntza Zerbitzura:

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 945 56 90 28
- Posta elektronikoa: diputaciondigital@araba.eus

Zerga arloko edozein zalantzatarako, gure Zerga Argibideetarako Zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezke:

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 945 18 15 55
- Posta elektronikoa: consultasfiscales@araba.eus